



OSTEGUNA

2024/04/25
12. urtea, 1.962. zenbakia
107.6 fm
Ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 95€

Vicente eta Alberdi, aurrez aurre

Aizkora apustua izango da etzi, Tolosako zezen plazan // 7

Bertako artistei lekua emateko ekimena jarriko dute martxan

Zizurkilgo Udalak antolatu du 'Zizurkil erraietatik', hilean behin ikuskizun bat eskaintzeko helburuz; lehena Arrixku taldearen kontzertua, bihar // 6



M. GALARRAGA

«Batak bestearen ibilbidearekin asko gozatu du»

MIKEL ETA IÑAKI ARTOLA

GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO KOORDINATZAILEA ETA PILOTARIA

Anaia helduena bertsotan oholtzetan aritu da, eta egun, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko koordinatzailea da; gazteena, berriz, pilotaren goi mailan lehiatzen ari da azken urteetan, eta Buruz Buruko Txapelketan maila ederra ari da ematen // 4-5



**DASTATU
UZTA BERRIA**

OSTIRAL
EGUERDIETAN ERE
ZABALIK!

ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

JOSEBA ITURGINTZA



Iturgintza



Aerotermia



Berokuntza



Klimatizazioa



Biomasa

600 561 782

josebasaralegi@gmail.com

Zaintza arloa aztertzeke beka deitu dute

Hilabeteko epea zabaldu dute Irurako udaletxean beka proiektuak aurkezteko; 5.000 euroko saria izango du bekadunak

Erredakzioa Irura

Irurako Udalak joan den martxoaren 21eko ez ohiko osoko bilkuran, ikerketa beka bat egiteko erabakia hartu zuen, herrian gaur egun zaintzaren arloa aztertu eta etorkizunera begira eraiki nahi den zaintza eredua definitzeko.

Beka honen bitartez Iruran zaintzari dagokionez herritar orok eskura dituen udal mailako baliabideak deskribatu eta hauen erabilerari buruzko analisi egingo dute. Iruran udal egituratik harago dauden baliabideen deskribapena ere egingo

dute eta zaintza arloan irurarrek egun dituzten beharren analisia egin. Horretarako genero ikuspegia aplikatuko dute eta herriarrek dituzten bizipenak eta esperientziak jasoko dira. Zaintza arloan berezkoak diren dimentsioak identifikatuz, etorkizunean egongo diren behar nagusien definizioa egin nahi dute bekarekin.

Herrian zaintza sistema egituratzen duten dimentsio guztiak aztertu eta hemendik abiatuta etorkizunera begira egongo diren beharrak aurreikusi eta guzti hauei erantzuteko, «eredu komunitario, sostengarri eta femi-

nista» eraikitzeke oinarriak finkatu nahi ditu udalak. Beka deialdiaren xedeetan udalak aipatzen duenez, «urte hauetan agerian geratu da indarrean dagoen zaintza sistemaren ahultasuna eta horrek gure gertukoekin zein ingurukoekin bizitzetan duen eragina». Horregatik, udalak kontsideratzen du beharrezkoa dela pausa bat egin, testuingurua aztertu eta etorkizunera begira zaintza eredua bat eraiki ahal izateko estrategia pentsatzen hastea. Horretarako balioko du azterketak.

Bekaren zenbatekoa 5.000 eurokoa izango da eta norbanako-



Iruran Greba Orokor Feministaren harira plazan egindako elkarretaratzea. J.A.

ek nahiz horretarako osatutako lan taldeek jaso ahal izango dute. Lana nola burutuko den azalduz proiektua aurkeztu beharko da ahalik eta zehatzen, eta gehieenez, 15 orrialdetan. Hilabeteko epea izango dute interesatuek egitasmoa udaletxe sarrerako erregistro ofizialean aurkezteko.

Udaletxeko erregistro elektronikoan, *online* ere aurkeztu ahal izango da proiektua.

Irurako Gizarte Zerbitzuetako arduradun politiko eta teknikoek, Berdintasun arloko zinegotziak eta idazkari kontu-hartzaileak osatuko dute beka nori esleitu erabakitzeke epaimahaia.

Superabitarekin itxi dute 2023ko ekitaldia

862.700 euroko superabitarekin amaitu du Amasa-Villabonako Udalak 2023a; inbertsioetara milioi eta erdi euro bideratu dituzte

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Ogasun batzordean 2023ko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du udaleko kontu hartzaileak eta jakinarazi du 862.700 euroko superabitarekin amaitu duela udalak iazko ekitaldia.

7.428.700 euroekin abiatu zuten 2023ko aurrekontu orokorra,

eta urtean zehar egindako kreditu aldaketa eta jasotako diru sarrera berriekin, kopurua 10.410.858 eurora igo zen. Aldi berean, iazko urtean zehar hainbat proiektu gauzatzeko 1.515.900 euro inbertitu zituzten. Udal gobernua proiektu nabarmenenak zerrendatu ditu: Olaederra kiroldegiko teilatuaren birmoldaketa; Larreako parke estalia; espaloiak eta asfal-

tatze lanak; kale argiteriaren luminaria berriak; Fleming herri eskolako azpiegiturak hobetzeko obrak; eta Arroako eskolako teilatuan jarritako eguzki panelak.

Behin 2023ko kontuak itxita, Amasa-Villabonako Udalak 3.901.600 euro ditu diruzaintzako gerakinean. Kopuru «aipagarria» da udal ordezkarien esanetan, «etorkizunean ezohiko inber-

tsio esanguratsuak zuzenean bere baliabide ekonomikoekin finantzatzeko aukera emango baitio udalari, kreditua eskatu edo zorpetu beharrik gabe».

Era berean, kontu hartzaileak Ogasun batzordean emandako datuen arabera, egun, 606.800 eurokoa da udalaren zor publikoa. «2019tik 742.500 euroan gutxitu da zor publikoa. %55 jaitsi da, duela bost urte 1.349.376 eurokoa baitzen udalaren zorra».

Udal gobernuaren esanetan 2023ko ekitaldiari buruzko datu

ekonomikoek erakusten dute «kudeaketa eraginkorra eta arduratsua» egin dutela arduradunek. «Baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatu izanaren seinale dira datuok. Inbertsioak igotzearekin batera, zor publikoa erdira murriztea eta era berean diruzaintzako gerakina nabarmen handitu izana, albiste oso positiboa da udalaren finantza egonkortasunerako». Udalaren egoera finantzarioa une honetan «osatsuna eta positiboa» dela adierazi dute.

Udal liburutegian arduraz jokatzera deitu du udalak

Erredakzioa Anoeta

Joan den apirilaren 13tik zabalik dago, berriro, Anoetako udal liburutegia, ohiko ordutegian.

Udalak erabiltzaile guztiei liburuazainarekiko, beste erabiltzaileekiko eta arautegiarekiko errespetua eta liburutegian arduraz jokatzera eskatu du.

Besteak beste bizikidetza egokirako arau hauek jarri dituzte: isiltasuna gordetzea; dispositibo elektronikoen soinuak deskonektatzea; patxadaz ibiltzea; haur kotxeak, patineteak, baloiak eta antzekoak liburutegiko sarrean uztea; 8 urtetik beherako haurrak heldu baten laguntzaz joatea; ordenagailuak informazioa eskuratzeko eta lanak egiteko bakarrik erabiltzea; eta instalazioetan ez jan eta ez edatea eskatzen dute.

Gaztetxearen 25. urteurrena ospatuko dute

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Gaztetxeak 25 urte beteko ditu eta urtemuga ospatuko du datorren hilean. Maiatzaren 4an 3x3 txapelketa bat antolatu dute eta arratsalde osoko torneoak egingo dute. Txapelketan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 2a baino lehen eman beharko dute izena Arkupe tabernan.

Maiatzaren 11n, berriz, bertatik pasa diren belaunaldi guztiak batzeko festa bat antolatu dute. Egun horretan, eguerdian sagardo dastaketa egingo dute, bazkaria izango da ondoren, eta arratsaldeko poteoaren ondoren, DJak eta txirrisklasa izango dira. Maiatzaren 11ko bazkarian apuntatzeko zerrendak Arkupe tabernan egongo dira jarrita datozen asteetan.

Udal bulegoa aurrerantzean udaletxean

Erredakzioa Irura

Irurako kultura bulegoa eraberritutako udaletxean kokatuta egongo da hemendik aurrera. Bertan ariko dira lanean kultur teknikari eta administrariak. Orain arte, Pello Arrese-igor kaleko kulturgunean egon da kultura bulegoa eta joan den apirilaren 18an egin zuten leku aldaketa.

Ostegunetik aurrera, 943 69 13 33 telefono zenbakira deituta jarri ahal izango dute herritarrek harremanetan kultura saileko kideekin.

Kulturgunean jarraituko du Irurako udal liburutegiak, baina hori bai, hemendik aurrera ordutegi berria izango du: astelehenetik ostegunera 16:30etik 19:00etara eta ostiralean 11:00etatik 13:00etara.

Martxan da San Joan jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

Lehen aldiz, adituek osatutako epaimahaiak gain, Jaietarako Herritarren Batzarrak ere finalisten artean bozkatu ahalko du

Josu Artutxa Dorronsoro

Azken urteetan egin den moduan, Tolosako San Joan festak iragarriko dituen kartelaren lehiaketa abiatu du udalak. Lehiaketa irekia da parte hartu nahi duten guztientzat. Gaia, koloreak eta lana egiteko teknika libreak diren arren, aurkeztutako proposamen guztiek originalak izan behar dute eta ondorengo esaldia jaso beharko dute: *Sanjoanak 2024, ekainak 21-24 - Tolosa*. Horrekin batera, Tolosako ikur komunikatiboa ere integratu beharko dute, kartelaren behealdean; udal webgunetik deskargatu daitezke bertsio desberdinak. Kartelek 50 zentimetroko zabalera eta 70 zentimetroko al-

tuera izango dute eta formatu digitallean aurkeztu behako dira. Irabazle aukeratzen den lanaren egileak bereizmen altueneko formatuan aurkeztu beharko du bere proposamena.

Lanak maiatzaren 5eko 14:00ak arte aurkeztu ahal izango dira. Lehiakide bakoitzak gehienez hiru proposamen desberdin aurkeztu ahal izango ditu. Proposamen guztiak fitxategi digital moduan aurkeztu beharko dira, udalaren webguneko sanjoanetako atalean, horretarako prestatutako aplikazioaren bitartez. Aplikazio horretan kartel bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio eta zenbaki hori izango da epaimahaiarentzat kartelaren identifikatzailea. Fitxategia-

ren izenean izenburua baino ez da azaldu behar.

Behin proposamen guztiak jasota, arte eta diseinuan adituak diren pertsonekin Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuak izendatutako epaimahaiak bost kartel finalista aukeratuko ditu. Finalista horien artean onena zein den ere hautatu beharko dute epaimahaiakideek. Boto horiei Jaietarako Herritarren Batzarraren beste boto bat gehituko zaie; izan ere, aurtun, lehen aldiz, herritarrek osatzen duten batzarrak bost kartel finalisten artean gustukoena hautatu ahal izango du.

Kartel irabazlea maiatzaren 27tik aurrera jakinaraziko da. Egileak 500 euroko saria jasoko



'Salbak', iazko irabazlea. ANGEL BLANCO

du eta honi dagokion atxikipena egingo zaio. Era berean, saritutako kartela eta beronen era guztietako erreprodukzio eskubideak Tolosako Udalaren jabetzapean geratuko dira.

Lehiaketaren oinarriak Tolosakoudala.org/sanjoanak web-orrian daude eskuragarri, eta lehiaketari buruzko informazio gehiagorako festak@tolosa.eus helbidera idatzi edo 943 670 388 telefono zenbakira deitu daiteke.

Duela 130 urteko herri-mugimendu bati buruzko hitzaldia

TOLOSA // Lizardi elkarteak antolatuta, Josu Chueca Intxusta idazle, historialari eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle ohiak *Gamazada euskaroen, nartararren eta euskaldunen garaietan* hitzaldia eskainiko du, gaur, kultur etxean, 19:30ean hasita. Chuecak gogora ekarriko du duela 130 urte foruzale nafarren eta euskal nazionalisten arteko hurbilketa eragin zuen herri-mugimendua.

Aholkularitza bulegoa ireki du Etxebizitza Sindikatuak

TOLOSA // Tolosaldeko Etxebizitza Sindikatuak aholkularitza bulego bat ireki du Tolosan, Plaza Berriko Abastos eraikinean. Apirilaren 29an eta maiatzaren 13 eta 27an egongo da zabalik, 17:00etatik 19:00etara. Sindikatuko kideek esan dutenez, etxebizitzaren gaiari lotuta, zailtasun egoeran daudenei dago zuzenduta. Bulegora gerturatu ezin dutenek 613 76 82 48 telefono zenbakira deitu dezakete.

San Bernardo eskaut elkarte agurtzeko bazkaria egingo dute

TOLOSA // Maiatzaren 25ean, larunbata, San Bernardo eskaut elkarte agurtzeko bazkaria egingo dute. Ospakizunean parte hartu nahi duenak mezu bat idatzi behar du sanbernardotaldea@gmail.com helbidera, izen-abizenak eta telefono zenbakia rekin. Antolaketa errazteko izena lehenbailehen ematea eskatu dute. «Zu bertan ikusteko gogoz gaude. Animatu zaitetz!», adierazi dute antolatzaileek.

GUTUNA

Euskaldunon Harrotze Astea Tolosaldean

Iritsi da Euskaldunon Harrotze Astea, baina batzuek motibo gehiago dituzte lotsatzeko, harro sentitzeko baino. Denon belarrietara iritsi dira Tolosako Asuncion Klinikaren inguruko arazo eta borrokak, batez ere Tolosaldeak duen ospitale publiko baten beharrak sortutakoak. Baina azken urteetan euskararen egoerak eskualdeko osasungintzan izan duen behararada ere larritzeko modukoa da.

Badakigu mediku falta dela euskararen gaia bigarren mailan

eta lozorroan mantentzeko aitzakia ederra, baina aitzakiak aitzaki, benetan nahi duenak aurrerapausoak eman ditzake pixkana bada ere. Kontua da, aurrera ez ezik, atzeraka ez ote goazen. Tolosaldea oso eskualde euskalduna da, baina bertako osasungintza ez da eskari horri aurre egiteko gai. Gero eta profesional gehiago dira kanpotik datozenak, eta behar ditugu, baina profesional hauekin batera behar ditugu hauek euskararekin hartu-eman izaten hasteko laguntzak eta planifikazioa.

Alde batetik, Osakidetza kontratatzen dituenen artean, euskara eskakizunik behar ez duten

plazak daude, eta horren adibide da Tolosako eta inguruko pediatria zerbitzuen erdalduntzea. Gero eta gehiago dira pediatriarekin gaztelaniaz egin behar duten gurasoak (haurrak askotan ez baitira gai gaztelaniaz hitz egiteko), komunikazio falta horrek dakarren arretaren kalitate jaitsierarekin. Beste alde batetik, Asuncion Klinika daukagu, pribatua izanik, euskararen presentzia borondatezkoa izatera pasatzen delarik. Horren ondorio da, noski, mediku asko eta askok euskaraz ez jakitea eta jakiteko beharrik ez sentitzea.

Tolosaldea bezalako eskualde euskaldun batean onartezina da

gure hizkuntzarekiko axolagabekeria hau. Herritarrek kalitatezko arreta merezi dute, eta horrek berarekin dakar euskaraz komunikatu ahal izatea. Aldarrikatu dezagun ozen euskara dela Euskal Herriko hizkuntza ofiziala. Har ditzagun kaleak eta ikus dezatela ez gaudela besoak antxumatuta. Euskarak kalea behar du, euskarak zu behar zaitu. Animatu eta pasa ekintzara. Bat egin Euskal Herrian Euskara-ek antolatu duen Harrotze Astearekin!

Ane Aizpurua
(LAB Osasungintza)

Euskal Herrian Euskaraz-ek martxan jarri duen Harrotze Asteari lotuta

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Joan Otegi Unanue



Atzo hil zen, 2024ko apirilaren 24ean, 64 urterekin.

Gurasoak: Carmen Unanue eta Markos Otegi (†); Semeak: Urtzi, Ioritz eta Aintzane, Kimetz eta Manex; Bikotea: Kontxi Zaldúa eta bere semea Ilargi; anai-arrebak: Ana eta Jose Mari Zurutuza (†), Joakin eta Laguntze Alkorta, Pepi eta Joakin Mujika, Jose Mari eta Carmen Sanchez, Martin eta Pili Irazusta, Ander, Peio eta Marian Sukia, Mila (†), Pili, Manu eta Keles Mendiguren, Ixiar eta Iñigo Ordozgoiti, Mikel eta Ainhua Zarraga. Ilbaki, iloba txikiak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Lurrak goxo har zaitzala Joan.

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri beilatokian egongo da gaur goizeko 10:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Azken agurra familia artean egingo da. Mila esker aldeztu aurretik.

ORDIZIAn, 2024ko apirilaren 25ean.

Unai Ugartemendia

Bertsolaritza eta pilota ezinbestekoak dira gaur egun oraindik Artola anaien etxean. Bietan zaharrenak, Mikel Artolak (Alegia, 1989), bertsoaren baitan darama ia bizitza guztia, lehenik bertsolari moduan, eta azken urteetan Gipuzkoako Bertsotale Elkarte-ko koordinatzaile gisara. Gazteena, aldiz, Iñaki Artola (Alegia, 1994), gaur egungo pilotaririk ezagunenetakoa da. Azken hila-beteetako joko boladari eutsi nahi dio orain jokatzeko ari den buruz-buruko txapelketan.

Biak ere txapelketetan berte-betan murgilduta zaudete. Galtzak bete lan zabiltzate?

Mikel: Bai. Aurtengoan Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa tokatzen da, eta laster gara haste-koak. Hemen inguruan ere saio batzuk izango ditugu, eta horren prestakuntzan gabiltza.

Iñaki: Bai, ni ere halaxe nago. Lehenik, lau eta erdikoa izan zen, ondoren binakakoa, eta orain buruz-burukoan ari naiz. Etenik gabe ia astez-aste partida garrantzitsuak jokatzeko dihardut buru-belarri.

Nola gogoratzen duzue umezaroa?

Mikel: Niri, Iñakiri baino urrutiago gelditzen zait garai hura, eta ziurrenik gutxiago gogoratu-ko dut. Bi zatitan bezala gogoratzen dut; batetik, Alegian, edozein ume bezala, gure gelakideekin, eta frontoi inguruan askotan. Nire burua han kokatzen dut. Bestetik, beste zatiak baserri girora narama. Aita Alegiakoa da eta ama Urnietakoa, eta biak ere baserri mundukoak dira. Urnietara ere askotan joaten ginen.

Iñaki: Nik ere umezaroa horrela gogoratzen dut. Zortea izan genuen mugikorrek eta berandua-ko ezagutzekoa. Beti kalean ibiltzen ginen jolasean, eta gehienetan kirola egiten pasatzen nuen denbora gehiena. Betidanik izan naiz kirolzalea, eta edozertara ematen nuen izena, izan pilota, izan futbola, badminton... As-teburuetan baserrira joaten ginen aitona-amonengana, eta, han ere bai anaiarekin edo lehengusu edo aitona-amonekin jolasean egoten ginen. Ederki pasatzen genuen!

Bost urteko aldea izanik bien artean, anaia gaztea zahar-aren itzalean ibiltzen al zen?

Mikel: Hori berak esan beharko du [barrezka]. Orduan Alegian, eta uste dut oraindik ere, ez ginen adin bereko taldeetan bakarrik ibiltzen. Orduan ere bi edo hiru urteko aldea genuenak ere

«Pilotak eta bertsoak ez digute ezer zor»



IÑAKI ETA MIKEL ARTOLA PILOTARIA ETA GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Biak ala biak aritu dira pilotan nahiz bertsotan, baina helduenak egin du aurrera bertsolaritzan, eta gazteenak pilotaren munduari eutsi dio

batera ibiltzen ginen. Uste dut azken urteetan ni bere itzalean gehiago ibili naizela.

Iñaki: Niretzako beti izan da erreferentea. Beti esan izan dut gure zaletasunik handienak beti, pilota eta bertsoa izan direla. Hori ez da kasualitatea! Beragatik sartuko nintzen ni ere bi mundu horietan. Eta gaztetan, berak musika bat entzuten bazuen, nik atzetik hura entzuten nuen. Berdin irakurtzeko zaletasunarekin ere. Bere antzekoa izan nahi nuen. Anaia izateaz gain, zaharragoa ere bada, eta horrek ere asko lagundu izan dit. Pertsona garrantzitsuak izan da niretzat.

Oso umetan jada, ez omen zenuten pilota askatzen.

Iñaki: Beharbada bion zaletasunik handiena izan da beti pilota. Baserrian bertan ere ez zegoen koskarik gabeko paretik, eta halere beti sortzen genuen jokatzeko

ko aukera. Baserrira joan aurretik, aitarekin pilotan aritzea izaten zen denborapasarik onena guretzat. Zaharragoa zen arren, nire nahia beti anaiari irabaztea izaten zen beste edozeren gainetik. Horrez gain, etxean ere, gurasoek eta aitonak beti izan dute pilota ikusteko zaletasuna.

Pilotako hastapenak nola gogoratzen dituzue?

Mikel: Eskola kiroleko garaiekin gogoratzen naiz. Halere, gogoan daukat lehenik futbolean eman nuela izena pilotan hasi aurretik. Betidanik izan naiz pilotazalea. Herriko gehienak ere pilotan ibilitakoak izan gara. Gutxi izango dira probatu gabeak! Iñakirekin azkar konturatu nintzen ni baino hobe zela. Umeagoa zela ere, beti pilotan ibiltzen zen. Beste ezer ez zuen egiten! Edozein lekutara pilotarekin joaten zen.

Iñaki: Orain ez dakit horrela jarraituko duen, baina gure kua-

drillan ez dakit inor baden pilota probatu gabea. Asko, takoe-kin jokatzeko ere ibili ziren. Herrian ere pilota eskola martxan jarri zuten. Gu izan ginen lehen belaunaldia, eta Altxoko Jexux Murrarekin, Ikaztegi-ko Joxean Urretabizkiarekin hitz egin eta horrela sortu zen. Beste askok baino bide errazagoa izan genuen guk.

Bertsolaritzan ere biak arituko zarete. Nola hasi zinen zu bertsotan Mikel?

Mikel: Ni berandu xamar hasitakoa naiz. Pilotaren ibilbide antzekoa izan da bertsolaritzarena. Aitonak bazuen hitzekin jolasteko joera, eta uste dut horrekin gelditu nintzela ni ere. Ondoren, eskolako DBH garaian, Bixente Gorostidiarekin aritu ginen. Halere, orduan, oso urruti ikusten genuen bat-bateko bertsolaritza. Ondoren bai, lehenik herriko bertso eskolan, eta ondoren Gas-

teizera ikastera joan nintzenean hasi nintzen serioago. Halere, oroitzen dut nola kateatu nintzen Lazkao-Txikiren marrazki bizidunekin. Gure etxeko girotik gertu zegoen umorea zen hura. Bederatzi urterekin jada bere kaseteak entzuten nituen nik! Bai pilotan eta baita bertsotan, zorte handia izan dugu inguruko jendearekin.

Zu ere ibilitakoa zara bertsotan Iñaki.

Iñaki: Beti gustatu izan zait bertsolaritza. Herrian ere giro hori genuen, eta gainera festetan bertso saioa ere egiten da herrikoekin. Horren parte izan nahi genuen. Berak pilotarengatik esan duen bezala, ni ere goiz samar konturatu nintzen Mikelek bertsoetarako zuen erraztasunik ez nuela nik [barrezka].

Gogoan daukazue lehenengo bertso saioa?

Mikel: Saiatzen naiz ez gogoratzen, baina gogoratu egiten naiz! Lehen aipatu dugun herriko festetako saioan izan zen. Hamazazpi urte edo izango nituen. Aurreko urteetan iruditzen zitzaidan ez zirela batere onak bertaratzen zirenak, eta nik ere egin nezakeela haiek egiten zutena. Plazaratu nintzen ni ere, baina ez zitzaidan bertso-rik ateratzen! Oso urduri jarri nintzen. Erridikulu latza egin genuen. Ez dut oso oroitzapen onik.

Iñaki: Ni eskolarteko umeen txapelketa batean atera nintzen lehenbizikoz oholtzara. Nire azken urtea nuen eskolartekoan, ezingo nuen gehiago atera. Herriko beste birekin joan nintzen, eta guri laguntzen aritzen ziren Felix Irazustabarrenarekin eta Iker Iriarterekin. Oso ondo pasatzen genuen! Ondoren, ni ere herriko festetako saioan aritutakoa naiz. Urtean behin bertsolari sentitzeko aukera eskaintzen digute herriko festek.

Pilotan profesionala, debutatu eta gero izaten den moduan, bat noiz da bertsolari?

Mikel: Nik askotan izaten dut buruan gai hau! Gaur gaurkoz ni ez naiz bertsolari sentitzen. Nik hasieran uste nuen, plazan saio on bat egin eta gero izango nintzela bertsolari. Hori egin nuen, baina, halere oraindik ez nintzen bertsolaria kontsideratzen. Ondoren, aldiz, txapelketaren bat edo gazte sariren bat irabaztean, edo finalera iritsita izango nintzela. Hori ere egin nuen, baina oraindik ez zitzaidan iruditzen. Aurrerago, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan kantatu beharra zegoen, eta hori ere egin nuen. Oraindik ez nintzen sentitu! Agian, finala jokatu beharko

da bertsolari sentitzeko [barrezka]. Orain, hotzean pentsatzen dut, bertsolari izateko nonbaitek deitu behar dizutela bertsotara joateko. Alegia, kantatzeko eskaintza jaso behar dela. Bestalde, bertsolariak aktiboa behar du, eta kantatzeko aukera ikusten badu, kantuan egin behar du. Pilotarekin gertatu zitzaidan antzera, egin behar nuen ahaleginak eta bertan pasa behar nuen trago txarrak, eta horrek itzultzen zidanak, ez zidan konpentsatzen kantatzen jarraitzeko. Ez nuela horretarako balio konturatu nintzen. Azkenerako oso gaizki pasatzen nuen.

«Oso gazte nintzela konturatu nintzen Iñaki ni baino pilotari hobeazela»

MIKEL ARTOLA
GIPUZKOAKO BERTSOZALE
ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Gaur egun oso pilotari ezaguna zara zu Iñaki, baina nola gogoratzen dituzu profesioaletako lehen urteak?

Iñaki: Oso parera etorri zitzaidala bezala gogoratzen dut estreinakoa. Ez zidan beste munduko sakrifiziorik eskatu. Ordura arte dena zaletasuna zen, eta oso gustura egiten nuen gauza bat zen. Afizionatueta oso ondo nenbilen, eta ez nion pilotari lehentasunik eman behar izan. Espero nuen gauza bat izan zen. Estreinakoa ere ez zen nire kirol ibilbideko partidarik garrantzitsuena izan. Mikelek bertsolari sentitze-

«Nik ere asko gozatu dut Mikelen bertsotako ibilbidearekin»

IÑAKI ARTOLA
PILOTARIA

aren edo ez sentitzearen sentipena ere izan nuen nik pilotari izatearekin. Afizionatueta oso aurrean ibiltzetik, profesioaletarako jauzia izugarria da, eta, garai batean herri batetik pilotara joateko gonbita jasotzean, nik ere izaten nituen zalantzak. Askotan pentsatzen nuen: «ni ere ez naiz ba punta-puntakoena ba!». Iruzurgilearen sindromea ere sentitzen nuen noizean behin, eta asko saiatu gabe iritsi izanaren sentsazioa ere izan dut. Orain, aldiz, ezberdin ikusten dut hau dena. Gaur egun, eta pilotaren munduan gertatutako hainbat gertakariengatik, nire buruari aitortzen diot pilotaria naizela.

Azken urteetan, zu, Mikel, Iñakirekin botilleroa izan zara

hainbat txapelketatan. Asko sufritzen al da aulkian?

Mikel: Bai, eta gozatu ere bai. Niretzat izugarrizko zortea izan da dena barrutik bizitzea. Gainera, bolada batean entrenamenduak batera egiteko zortea ere izan dugu. Barrutik dena oso ezberdin ikusten da. Aulkian tokatu izan zait sufritzea. Beste inork ez dakizkien gauzak dakizkit nik, nahiz eta gauza guztiak ez dizkidan kontatzen. 2021eko finalean ez egotearen arantza txiki bat gelditu zait, baina neurri bateraino. Finalera pasa zen egun hartan izugarrizko poza sentitu nuen.

Eta zuri Iñaki? Arantzarik utzi zizun jokatu ezinda gelditu zinen final hark?

Iñaki: Hasieran bai. Asko eragin zidan, eta gaizki pasa nuen. Animoz oso baxu ibili nintzen, eta denbora dezente behar izan nuen berriz ere umorea erreku-peratzeko. Orain, denborarekin, ez nuke hainbesterik esango. Geroztik, asko baloratu dut final batera iritsi izanak.

Mikelen bertsolari ibilbidea jarraitu izan duzu zuk Iñaki?

Iñaki: Bai, eta nik ere asko gozatu dut bere ibilbidearekin. Bere kuadrillako lagunekin joandakoa naiz bera ikustera Mutrikura oso gaztetan. Sariaren bat irabazitakoan ere esaten nuen: «hori nire anaia da, e!». Txapelketetan ere jarraitu izan dut. Kanpotik begira egonda asko sufritzen da. **Bertsolaritzak eta pilotak zerbait zor dizue?**

Mikel: Ez ez! Bertsoak, ingurune bat eta lagun talde bat ematen dizu. Euskal kultura ez da hain handia, eta nahiz eta desabantaila batzuk izan, abantaila asko ere baditu. Inoiz ez nuen pentsatuko bertsolari onenekin kantatzeko aukerarik izango nuenik ere. Nire maila apalean, Andoni Egañarekin, Maialen Lujanbioarekin, edo Joxe Agirrearekin kantatzeko aukera izan dut. Guretzako, esaterako, Felix Irazustabarrena edo Jexus Murua bezalako pertsonak, herriko beste batzuk ziren, alegia, gauzak egiten zituzten jendea zela. Baina ez ziren pertsona inportanteak gure herrian bakarrik, beste leku batzuetan ere baziren. Zortez, guk, ondoan izan ditugu.

Iñaki: Ez! Niri gainera esapide hori ez zait batere gustatzen. Ez dut inoiz horrelakorik esango. Oso umetatik izugarri ondo pasa izan dut pilotan. Gure lehen entrenatzaile haiek egindako lanari esker, orain arte jarraitzeko aukera izan dut. Jende asko ezagutu dut, eta, lagun asko egin ditut pilotari esker, eta gainera urte askotan jaten eman dit.

AURREZ AURRE

Aurrez aurre bideoa
hemen ikusgai:
Ataria.eus



Zer da Iñaki / Mikel zuretzat?

Mikel: Anaia. Horixe da niretzat Iñaki!

Iñaki: Anaia esanda zenbat esaten den! Zaila da gehiago esaten. Nik ere berdina esango nuke!

Nola definituko zenuke Iñaki / Mikel?

Mikel: Pertsona alai bat bezala ikusten dut, eta halaxe definituko nuke.

Iñaki: Niretzako lagun bat, baina zaletasunez gain aita, ama edo etxea partekatu dudana norbait. Pentsa...

Zein ezaugarri positibo nabarmenduko zenuke besteaz?

Mikel: Bere positibotasuna. Ni baino positiboagoa da.

Iñaki: Ni baino pertsona seguruagoa da Mikel. Erabakiak aurrera eramateko ausardia handia dauka.

Zerbait nabarmendu beharko bagenu ez hain positiboa?

Mikel: Despistatu samarra dela! Ez da oso ezaugarri positiboa, noski, baina hortik asko dauka. Bestalde, batzuetan zalantza gehiegi izaten ditu.

Iñaki: Bere erabakimen horrek dakarren gauza bat, beti asmatzea ez dela posible izaten.

Nora joaten zara edo joango zinateke gustura berarekin?

Mikel: Bidaiaren bat egingo nuke Iñakirekin. Biak bakarrik ez, badaezpada ere, beste la gauza onik ez genduke eta egingo. Onena, Iker Iriarterekin edo Josu Iztuetaekin joatea izango genduke [barrezka].

Iñaki: Lehen ibilitako tokietara, esaterako, baserrira udan lantxo bat eginez eta otorduren bat eginez, edo frontoira entrenamenduren bat eginez. Leku horietara joaten jarraituko nuke.

Bestearekin pasatako une bereziren bat edo pasadizoren bat?

Mikel: Pilota partidetatik etxerako bidean pasatako unek etortzen zaizkit burura. Partidak jokatu ondoren etorri izan garenetako kotxeko bidaiekin gogoratzen naiz.

Iñaki: Aita izan den honetan, Uxo haurdun zegoela esan zutenekoa, edo Anje jaio zen eguna.

‘Zizurkil erraietatik’ musika zikloa, bertakoei lekua emateko

Zizurkilgo Udalak jarri du martxan ekimena eta hilabeteen behin kultur ikuskizun bat antolatzea da asmoa; zikloa Arrixku taldeak estreinatuko du ostiral honetan

Aitor Arroyo Askarai

Zizurkil erraietatik zikloa jarri du martxan Zizurkilgo Udalak. Hilabeteen behin kultur ikuskizunak antolatuko dituzte Atxulondo kultur etxeko areto nagusian, eta bertako artistei «plaza emateko» helburuz sortu dute egitasmoa. Ekimeneko lehen kontzertua Arrixku taldeak emango du ostiral honetan, apirilaren 26an, 20:00etan.

«Izenak berak ondo adierazten duen bezala erraietatik eza-gutu nahi ditugu bai Zizurkilgo, bai bailarako artistak. Badakigu sortzaile ugari daudela eta horiei guztiei aukera eman nahi diegu taula gainean azaltzeko eta duten talentua agerian jartzeko», horrela hitz egin du Maite Amenabar Zizurkilgo alkateak proiektu berriaren inguruan. Hari berari tiraka nabarmendu du «edozein diziplinatako eragileak» bildu nahi dituztela ziklo horretan, eta gazteengan jarri nahi dutela «arreta bereziki».

Ainhua Larrea kultur teknikariak azaldu du «hainbat urtetan» eskatu dietela herriko gazteek entsegu lokalak zabaltzeko, baina udalaren azpiegiturek ez omen dute ematen eskaera erantzuteko adina.

KULTUR ETXEA, ZABALIK

«Baloratzen aritu ginen eta Atxulondo kultur etxean areto nagusi bat daukagu; bada, horixe da eskaini nahi dieguna»,



Zizurkilgo Udalak hilean behin kultur hitzorduak antolatzeko ohitura sustatu nahi du herrian. A. ARROYO

eskaera horiei erantzuteko kultur etxea zabalduko dutela azaldu du kultur zinegotziak.

Hainbat arte diziplinatako sortzaileak erakarri nahi badi-tuzte ere, musikan emango dituzte lehen urratsak, eta Larreak azaldu du jabetzen direla horrek «mila arazo» ekarriko dituela.

Arazo horietako bat izan liteke lekuak egokitzea kontzertuak

«Kultur etxeko ateak irekiz sormena erakarri daiteke, eta artisten artean harreman interesgarriak sortu»

AINHOA LARREA
KULTUR TEKNIKARIA

egiteko; bada, Zizurkilgo Udalak bere gain hartuko du soinu aparatuak instalatzea Atxulondo

kultur etxeko areto nagusian. Horrekin oholtzara igotzea «erraztu» nahi diete, besteak beste, musika talde hasiberriei: «Kultur etxeko ateak irekiz sormena erakarri eta oso harreman interesgarriak sor ditzakegu artisten artean. Udala beti pronto egongo da bidelagun izateko ibilbide honetan».

Zikloaren beste helburu bat da bertako kultur sortzaileei

«balioa aitortzea», eta horretan sortzaileak zein «babesleak» bezain garrantzitsuak dira ikusleak Larrearen iritziz. Ekimen honen bitartez herrian hilean behin, gutxienez, kultur hitzorduak antolatzeko ohitura sortu nahi dute.

Dagoeneko itxi dute hurrengo ekitaldia ere: Zirubi taldeak emango du kontzertua, maiatzaren 31n.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

Bi lagunentzako irteera gidatua
Gozatu euskarazko bisita gidatuen eskaintza zabalaz
Gutxienezko adina: 12 urte
Irteera puntua: Deba, Mutriku edo Zumaia
geoparkea.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkarte
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

3 BBK Karpin Abentura

FAUNAREN BABES ZENTRUA

Bi lagunentzako bina sarrera
Karrantza
infokarpin@gmail.com
626 622 245



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 943 09 06 08 telefono zenbakira edo sartu Ataria.eus webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.



Iker Vicente eta Julen Alberdi 'Txikia IV.a', atzo, Tolosako zezen plazan. ASIER IMAZ

Urteko aizkora apustua, etzi

Iker Vicente eta Julen Alberdi 'Txikia IV.a' aizkolariek desafioa jokatu dute Tolosako zezen plazan

Joxe Anjel Sarasola/
Asier Imaz Tolosa

Ikusmina sortu duen aizkora apustua izango da larunbat honetan Tolosako zezen plazan. Aurrez aurre izango dira Iker Vicente eta Julen Alberdi *Txikia IV.a*. 18:00etan hasiko da norgehiagoka, eta egin beharreko lana zortzi enbor 60 ontzako eta hamalau kanaerdiko izango da. Urteko apustua dela esan daiteke: momentu honetan maila handienera dauden bi aizkolaria dira eta lan horrek emango du beraien arteko lehia erakusteko modua. 50 euro balio du sarre-rak. eta Tolosako Kantrabiko tabernan eta Azpeitiko Mendizabal tabernan daude salgai.

Urtarrilaren hasieran adostu zuten apustua, eta Alberdik Ataria Irratiko *Desafioa* saioan azaldu zenez, «momentuz nahiko gustura nago egindako prestaketekin». Lana aukeratzekoan «tirabira» pixka bat izan zutela esan zuen Alberdik, baina 60 ontzako urtean zehar dezentetan ebakitzen duten enbor mota dela gaineratu zuen. «Alde horretatik ez dut izan arazorik egur neurri horretara egokitzeke. Nahiko ondo moldatu naiz bi neurritara». Egur motari dago-kionez, egunean bertan jakingo dela aizkolaria bakoitzak zer eramango duen aitortu zuen. «Egur leunak eta gogorrak, bietatik ari-tu naiz ebakitzen, eta bietako prestatutako egongo naiz».

Fisikoki apustu baterako hobeto prestatzen dela esan zuen Alberdik: «Denbora gehiago sartu dugu, eta jatekoak-eta hobeto zaindu ditugu, eta fisikoki hobeto iritsiko naiz». Bi edo hiru kilo hartu ditu, eta orain 94 kilotan dago. «Indarrez hobeto ote nagoen errezeloa dut». Lehenengo apustua da Alberdirentzat: «Momentuz nahiko lasai nago, eta prestaketa ere nahiko lasai eraman dut».

Vicentek eskarmentu handiago du apustueta, dagoeneko zenbait egin baititu. «Gustura nago; hilabete gogorrak izan dira, eta entrenamendu asko egin ditut, eta uste dut lan oso on bat egingo dudala», azaldu zuen *Desafioa* saioan. Entrenamenduetan denetik egin duela esan zuen: «Erresistentzia asko landu dut, hasieran batez ere, entrenamendu oso luzeak eginez. Gero aizkoran ere aritu naiz, lan oso serioa dugu egiteko eta».

Apusturako ezberdin egin du prestakuntza eta elikadura: «Ikusten nuen azkeneko urteetan Txikia-k lan handiak ematen zizkidala, eta apustuan irabazteko sentitzen nuen zer bait berria probatu behar nuela. Saiatu naiz kiloak hartzen, eta batzuk hartu ditut, kolpea-eta hartzeko. Bera fisikoki badakigu nolako onaden, eta egurrari asko ematen dio. Bere parera iritsi nahian, kilo batzuk hartuta joango naiz plazara, eta 92 kilorekin nago orain».

Loatzoko Igoera-Jaitsiera, hogeita hamargarren aldiz

I. Garcia Landa
Amasa-Villabona

Loatzoko XXX. Igoera-Jaitsiera egingo da igandean, apirilak 28, 10:30ean hasita. Amasako Uxo-Toki elkarteak eta Martina Kultur Elkarteak antolatu dute mendi lasterketa. «Aurtengo edizioak zenbaki biribila du. Dagoeneko badira urte batzuk antolatzen dena, eta ohiturari jarraituz aurtengo berritua antolatu dugu», esan du antolakuntzako kidea den Kepa Nazabalek. Aurrera begira ere antolatzeak asmoa dutela gaineratu du.

Probaren berezitasuna izen ematea doan dela eta egunean bertan egitean dela da, eta horrela mantendu dute aurtengo ere. 09:00etatik aurrera eman ahal-ko da Uxo-Toki elkartearen. «Orain arte funtzionatu digun metodoa da, eta horrela jarraitzeak asmoa dugu», esan du Nazabalek. Bera, ez dakite zehazki zenbat parte hartzaile izango dituen probaren hasiera iritsi arte. «Korrika

egiteko leku polita da, eta baita mendi lasterketa bat lehen aldiz probatzeko ere. Lehendik egin dutenek, jarraitu ohi dute parte hartzen».

Ibilbideak ere berean jarraitzen du. Amasatik atera eta Loatzoko mendira igotzen da bide zuzen batetik, eta ondoren, «arriskurik gabeko» beste bide batetik jaisten da berritua Amasara. Guztira 9,73 kilometro ditu probak. «Hasieran badu brea zati bat ibilbideak, eta Alustizara iristeko bidezidor batetik igotzen da, marra zuzen bat marraztuko balitz bezala, eta ondoren belaze batetik sartu eta Loatzoko puntaraino bide zuzena da», azaldu du Nazabalek. «Jaitsiera batez ere pista batetik egiten da, modu erosoan egiteko modukoa».

SARIA AURRENEKO HIRUREI

Aurreneko hiru sailkatuei, emakumezkoetan zein gizonezkoetan, saria ematen zaie. Lehenengo 120 euro eta txapela, bigarrenekoak 80 euro eta

hirugarrenekoak 50 euro. Horretaz aparte zozketa egiten da parte hartzaile guztien artean, hainbat produktuekin. «Hori dena eskaini ahal izatea babesle guztiei eskertu behar diegu, izen ematea doan delako», zehaztu du Nazabalek.

Lasterketaren beste berezitasun bat Loatzoko gainean hamaiketako eskaintzen dutela izaten da. «Jendea joaten da mendi buelta eginez, eta lasterkariei animatzen dien bitartean hamaiketako egiteko aukera izaten dute, salda eta haragi pin-txoak janez. Loatzora joaten diren guztiek dute horretarako aukera». Proba amaitzerakoan ere hamaiketako dastatzeko aukera izaten da Amasan.

Boluntario lanetan Amasako gazteak elkartzen dira, Uxo-Toki elkarteak kideekin batera. «Ezinbestekoa da denen laguntza horrelako ekitaldiak aurrera ateratzeko. Azken finean, herri giroan sortutako proba bat da», esan du Nazabalek.

Aiztondo Pilota Topaketako finalak, larunbatean

Erredakzioa Alkiza

Aiztondoko herrien artean antolatu duten 25. Aiztondo Pilota Topaketako finalak jokatu dira Alkizan larunbat honetan, apirilak 27, 16:00etan hasita. Otsailaren 4ean ekin zioten topaketari eta bailarako herrietako pilota taldeetan dauden 120 pilotarik parte hartu dute aurtengo edizioan.

25. edizioa izanik, kamiseta berezi batekin jokatu dute pilotariek, bertan topaketa antolatzen duten Behar Zana Pilota Taldea, Txulobi, Ziotza, Atzapar, Alkizako eta Larraulgo pilota eskoletako irudiak eta Amasa-Villabonako, Adunako, Zizurkilgo, Asteasuko, Larraulgo eta Alkizako udaletako armariak agertzen direlarik.

Finalean bost partida jokatu dira. Lehena, aurrebenjamin mailan eskuz binaka, Adunako herria ordezkatzuz Txulobiko lau pilotarik jokatu dute: Carrillo-

Aburuzak batetik eta Imaz-Gar-ciak bestetik.

Bigarren partidari, eskuz binaka benjamin mailan, Behar Zana lau pilotarik jokatu dute Amasa-Villabonako herria ordezkatzuz: Trore-Landak alde batetik eta Oñate-Urizarrek bestetik.

Hirugarren partidari, paletaz binaka infantilek jokatu dute molle pelle pilotarekin. Partida honetan bi bikoteak Txulobi eta Behar Zana pilotariek osatuko dituzte: Ortiz de Urbina eta Aburuzak, Zizurkil eta Aduna ordezkatzuz, eta Zabala-Pachecok, Amasa-Villabona eta Aduna ordezkatzuz.

Laugarren partida, eskuz binaka alebinek jokatu dute: alde batetik, Amasa-Villabona ordezkatzuz Behar Zana Artola-Serien bikoteak, eta bestetik Alkizako pilota eskola ordezkatzuz, Alkizako Aranzabe eta Urruzola.

Jaialdiko azken partida eskuz binaka infantilek jokatu dute.

Azken partida honetan ere Behar Zana bikotea izango da lehena eta bigarrena Behar Zana eta Txulobikoek osatua. Alde batetik Iraola-Zufiria Asteasu eta Amasa-Villabona ordezkatzuz eta Iparragirre-Navarro, azken hauek Aduna ordezkatzuz.

Giro aparta izatea espero dute Alkizako pilotalekuan. Besteak beste, topaketan parte hartu duten pilotari asko eta asko bertan izatea espero dute.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Taberna. Barra eta jangelarako zerbitzaria behar dugu, astebukaeretan eta agian asteke egunen batean lan egiteko. Aste bat bai eta beste ez lan egitea ere posible da. Euskara eta gaztelania jakin behar dira, jendearekiko jarrera atsegina izan behar da eta esperientzia baloratuko da, baina fundamentua eta ikasteko gogoekin ere nahiko izan daiteke. Kontakturako: 3taberna@gmail.com



OSTEGUNA, 2024KO APIRILAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 25

AGENDA

Deialdiak

Irura. Mekanizatzeko erreminten azoka. Frontoian 09:00etatik aurrera.
Irura. Goiatz Labandibarren *Bekatu* liburua aztertuko dute irakurle taldean, liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. Alkoholiko Anonimoen Tolo-sako Uzturre taldearen bilera, San Esteban auzoko lokalean, 19:30ean.
Tolosa. Gamazada euskaroen, napartarren eta euskaldunen garaieretan Josu Chuecaren hitzaldia. Kultur etxean, 19:30ean.
Zizurkil. Zenbat loliburuaren aurkezpena. Liburutegian, 18:00etan.

Antzerkia

Asteasu. *Futbolistok*, Zuhaitz Gurru-txagarekin. Udaletxean, 19:30ean.

Zinema

Tolosa. *El deshielo*, Leidorren, 19:30ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Kirol tertulia.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
18:00. Solasaldia.
20:00. Beste munduko musikak.

28 KANALA

10:30. Harri Salda.
13:30. Tolosaldea Gertutik.
17:00. Playlist.
20:00. Euskal Zirkul Elkartaren emanaldia.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Kontu kontari - Antton Herrarte.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.
Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa.
Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi 6 behe, 1. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro motela. Egun osoan hodeiak oso ugariak izango dira, zerua ilun agertuko delarik eta euria utziko dute. Zaparradak arratsaldean emango dira eta orokorrean euri txiki modura izango dira, nahiz eta, ez den baztertu behar tarteka mardulago egitea. Gauean ateriago geratuko da. Mendeal/ibar-mendealdeko haizea ibiliko da eta tenperatura gorago kokatuko da, 12-14 graduan joz goia.

Bihar. Giro argiagoa. Goi-zean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira. Arratsaldeko lehen orduetan barneal-detik barrena hodei trinkoagoak sartuko dira, zaparrada bakanen bat botatzea baztertu gabe. Azken orduetan ordea, berriz ere ostarteak gailenduko dira. Hego-haizea nagusituko da eta tenperaturak nabarmen egingo du gora, 16-18 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Horma-irudi berria Amarozko bidean

Garikoitz Muruak egin du elementu geometrikoekin eta organikoekin osatutako horma-irudia, N-1eko zubi azpian



Herritarrek, Garikoitz Muruak egin duen horma-irudiari begira. I.T.

Erredakzioa Tolosa

Amarotz auzora joateko N-1 errepidearen azpitik igaro direnek horma-irudi berri bat dagoela sumatuko zuten. Euren artean lotzen diren elementu geometriko-organikoen serieekin osaturiko lanak 100 m2 inguru ditu eta Garikoitz Murua tolosarrak egin du.

Zubiaren azpialde horretan mantentze lanak egin zituzten berriki, eta bertako horma-iru-

diak ezabatu ziren. 2010. urtean parte hartze handia izan zuen Olehiaketa egin zen, eta horren emaitza ziren horma-irudi horiek. Bada, espazio hori libre geratu zenez, artista tolosarrak hori baliatu nahi izan du lan berria egiteko.

Azaldu duenez, horma-irudiak ez du esanahi berezirik, eta ikusleari dagokio ikusten duena interpretatzea. «Muralismo abstraktuak ez du historia zehatz bat kontatu nahi, baizik eta sen-

tsazioak, galderak eta ondorioak sortu nahi ditu. Oreka, edertasuna eta talka eragin nahi du, kolorearen eta lerroen bidez», azaldu du Muruak.

20 urte baino gehiago daramatza Muruak Tolosan lanean, bereziki, horma-irudiekin eta kaleko artearekin lotuta. Bere lana Postgraffiti edo Graffitiurism deituriko korrontean kokatzen da. Sorkuntza abstraktuak, geometrikoak eta organikoak uztartzean datza korronte berri hori.



zozketa

LIBURUAREN ASTEA

Atarikideentzat liburu sorta bat dugu ELKAR Argitaletxearen eskutik



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**